



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2005eko urtarrilaren 25a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:10    **AMAIERA-ORDUA:** 19:35

**BERTARATUAK:**    **Alkatea**  
Mirari Arruabarrena Elizalde

### **Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

### **Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

Noemi Ostolaza Arkauz, amatasun aldia dela eta.  
Andoni Sarasua Oliben herritik kanpo dagoelako.



## Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, Orioko Pelotari eta Iturbide kaleen urbanizazio obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren Uraren Ziklo osoaren Kudeaketa arautzen duen Ordenantza.
3. Onartzea, egoki bada, 2005ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 1/2005 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hirigune Historikoa Eraberritzeko Plan Bereziari.
5. Onartzea, egoki bada, Orioko arrantzaleen kofradiarekin sinatu beharreko hirigintza hitzarmenaren testua, eta Alkateari ahalmena ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
6. Onartzea, egoki bada, H.I.E. 2 / A.I.U. 2 eremuko –Orioko Kirol Portuaren Sistema Orokorra– udal lurren salerosketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari.
7. Onartzea, egoki bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lan-hitzarmenaren testua, eta Alkateari ahalmena ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.
8. Onartzea, egoki bada, Orioko Azkue eremuan Udal sustapeneko Babes Ofizialeko 16 etxebizitza eta hauen eranskinak adjudikatzeko oinarriak.
9. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako presako mozioa lurrikarak Asiako hego-ekialdean eragindako giza hondamendia dela eta.
10. Eskaerak eta galderak.



## Esan-eginak

### **1. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO PELOTARI ETA ITURBIDE KALEEN URBANIZAZIO OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), San Sebastián (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO SEI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Legarra (EA), Cotado (EA) eta Azkue (EA) zinegotzien abstentzioarekin, guztira **HIRU ABSTENTZIO, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

**ONARTZEA**, Orioko Pelotari eta Iturbide kaleen urbanizazio obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiaz, ohiko tramitazioaz eta lehiaketa bidez. Plegu Baldintza horiek laburbilduz honela diote:

#### **1. Erakunde adjudikatzailea:**

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

#### **2. Kontratuaren helburua:**

- a) Helburuaren azalpena: Orioko Pelotari eta Iturbide kaleak birurbanizatzeko lanak egitea, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.
- b) Exekuzio epea: Epea, gehienez, 10 hilabetekoa izango da.

#### **3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:**

- a) Tramitazioa: Arrunta.
- b) Prozedura: Irekia.



c) Era: Lehiaketa.

**4. Lizitazioaren kopurua:**

1.764.957,01 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

**5. Garantiak:**

Behin-behinekoa: 35.299,14 euro.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

**6. Iragarki gastuak:**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

**7. Kontratastaren sailkapena:**

—Taldea A, azpitaldea 4, kategoria d.

—Taldea E, azpitaldea 1, kategoria d.

—Taldea G, azpitaldea 6, kategoria d.

—Taldea I, azpitaldea 1, kategoria d.

**8. Agiriak jasotzeko:**

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. Donostia.

**9. Eskaintzak aurkezteko:**

a) Epea: 26 egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

**10. Eskaintzen irekiera.**

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.



c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

## **2. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

1. **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren Uraren Ziklo osoaren Kudeaketa arautzen duen Udal Ordenantzari.

2. **JENDAURREAN JARTZEA** aipatutako Udal Ordenantza, toki-administrazioaren araubideko oinarrien arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan ezarritakoa betez, interesatu orok 30 lanegunetan zehar erreklamazioak eta oharrak egin ditzan Udalaren aurrean. Adierazi Udal Ordenantza interesatuen eskuera egongo da Udaletxeko idazkaritzan lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara. Era berean adierazi nahi da akordio horri buruz aipatu epean ez bada erreklamaziorik eta oharririk egiten, behin betiko onartuko dela Udal Ordenantza.

## **3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 1/2005 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko urtarrilaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2005eko aurrekontu propioari dagokion 1/2005 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen



kopurua 2.609.243 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu gehigarriak.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **4. BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOA ERABERRITZEKO PLAN BEREZIARI.**

Ramon Etxeberriak hartzen du hitza eta zera adierazten du: gai honetan interes pertsonala eta zuzena duela eta, beraz, ez duela parte hartuko gaiaren eztabaidan eta ondoko bozketan.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):



- 1.- BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA** Orioko Udalak sustatutako eta Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak idatzitako Orioko Hirigune Historikoa Eraberritzeko Plan Bereziari.
2. Aipatutako Plan Bereziaren espediente osoa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, bertako kontseilu diputatuak behin betiko onarpena eman diezaion.

## **5. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRANTZALEEN KOFRADIAREKIN SINATU BEHARREKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN TESTUA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.**

Ramon Etxeberriak hartzen du hitza eta zera adierazten du: gai honetan interes pertsonala eta zuzena duela eta, beraz, ez duela parte hartuko gaiaren eztabaidan eta ondoko bozketan.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

**ONARTZEA** Orioko Arrantzaleen kofradiarekin sinatu beharreko hirigintza hitzarmenaren testua, eta alkateari ahalmena ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.

## **6. ONARTZEA, EGOKI BADA, H.I.E. 2 / A.I.U. 2 EREMUKO –ORIOKO KIROL PORTUAREN SISTEMA OROKORRA– UDAL LURREN SALEROSKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



**ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, H.I.E. 2 / A.I.U. 2 eremuko –Orioko Kirol Portuaren Sistema Orokorra– udal lurren salerosketa euskal autonomia erkidegoko administrazio orokorrari.

H.I.E. 2 / A.I.U. 2 eremuko udal lurren azalera 26.584,40 m<sup>2</sup>-koa da, eta m<sup>2</sup>-ko 25 euro ordainduko dira. Beraz, guztira, 664.610 euro ordaindu beharko dizkio Eusko Jaurlaritzak Orioko Udalari.

Dena dela, salerosketaren aginduzko eskritura publikoaren sinadurarik gabe ere, Orioko Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku uzten ditu H.I.E. 2 / A.I.U. 2 eremuan –Orioko Kirol Portuaren Sistema Orokorra– dauden udal lurrak, osoko bilkuran akordio hau onartu zen egunetik hasita.

## **7. ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREKIN LAN-HITZARMENAREN TESTUA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA HITZARMENA SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lan-hitzarmenaren testua, eta Alkateari ahalmena ematea Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa hitzarmena sinatzeko.

## **8. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO AZKUE EREMUAN UDAL SUSTAPENENKO BABES OFIZIALEKO 16 ETXEBIZITZA ETA HAUEN ERANSKINAK ADJUDIKATZEKO OINARRIAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.





Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta 2005eko urtarrilaren 21ean egindako Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezkoto boto]:

**ONARTZEA**, Orioko Azkue eremuan udal sustapeneko babes ofizialeko 16 etxebizitza eta hauen eranskinak adjudikatzeko oinarriak.

## **9. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO PRESAKO MOZIOA LURRIKARAK ASIAKO HEGO-EKIALDEAN ERAGINDAKO GIZA HONDAMENDIA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioak hitzez hitz honela dio:

### **MOCIÓN URGENTE QUE PRESENTA EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA EN EL AYUNTAMIENTO DE ORIO RELATIVA A LA CATASTROFE HUMANA OCACIONADA POR SEISMO EN SUDESTE ASIÁTICO**

El pasado 26 de diciembre un devastador maremoto acaecido en la provincia indonesia de Aceh -situada en la isla de Sumatra-, azotó el sureste asiático dejando a su paso un devastador manto de muerte y desolación.

El fortísimo temblor, el mayor en el mundo vivido desde 1960, desató a su vez una sucesión de maremotos con olas de hasta 10 metros de altura y dejó bajo las aguas una superficie de miles de kilómetros en las costas de India, Sri Lanka, Indonesia (el país más afectado), Tailandia, Malasia, Maldivas y Bangladesh.

El balance de esta catástrofe es devastador: la cifra oficial de muertos supera ya los 150.000 a la espera de noticias de decenas de miles de desaparecidos y a lo que habría que añadir que el número de personas que se han quedado sin hogar se cuentan por millones.

Desgraciadamente, a pesar del fatal balance, la Organización Mundial de la Salud ha señalado que lo peor podría estar aún por llegar debido a que las enfermedades y epidemias ocasionadas por la descomposición de los cuerpos y la falta de agua potable, que amenaza con provocar tantas muertes como las producidas por el desastre natural.

Los efectos negativos de esta catástrofe son difíciles de paliar en países en vías de desarrollo como los afectados, por lo que es



imprescindible una ayuda inmediata de emergencia humanitaria, así como la cooperación a medio plazo para su futura reconstrucción.

Ante una catástrofe de esta magnitud debemos sumar nuestros esfuerzos a los del resto de la Comunidad internacional. Por todo ello el grupo municipal del PSE-EE en ORIO propone para su debate y aprobación en pleno la siguiente moción URGENTE:

El Ayuntamiento de ORIO desea mostrar su consternación ante la catástrofe humana sufrida en el sudeste asiático y manifiesta su solidaridad con todos los damnificados.

El Ayuntamiento de ORIO se compromete a habilitar una partida extraordinaria para tratar de paliar los efectos del devastador seísmo que será enviado con la máxima celeridad posible a las organizaciones e instituciones que están trabajando en la zona.

En Oriu, a 25 de Enero de 2005

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, Orioko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako presako mozioa lurrikarak Asiako Hego-ekialdean eragindako giza hondamendia dela eta.

## 10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez zen izan.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia alde zuzenetik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren (9 baiezko boto):

## 11. ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIKAMIYOTA AREAN UDAL BILTEGIAREN OBRA BERRIAREN ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2005/01/25

**AHALMEN ZABALA EMATEA** Alkateari, Orioko Bikamiyota Arean Udal biltegiaren obra berriaren eskritura publikoa sinatzeko.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**